

Etheen Koiuntura Ekonomikoari buruzko Inkesta. Internet bidezko erosketen modulua. 2024ko 1. hiruhilekoa

Nafarroako kontsumitzaileen % 60k baino gehiagok egin dituzte erosketak Internet bidez azken urtean

Erosotasuna eta prezio hobea izan dira Internet bidezko erosketak egiteko arrazoi nagusiak

2024ko apirilaren 9a


INTERNET BIDEZKO EROSKETAK AZKEN URTEAN

18 urtetik gorako nafarren % 68,8k erosi dituzte produktuak edo zerbitzuak Internet bidez azken urtean (% 66,1ek aurreko urtean). % 60,6k datorren urtean erosketak bide horretatik egitea aurreikusi dute, eta % 39,9k azken hilabetean egin dituzte. Aurreko urtekoak baino ehuneko handixeagoak dira (% 59,9 eta % 38,7, hurrenez hurren).

Produktuak. Azken urtean produktuak erosteko Internet erabili duten pertsonen dagokienez, % 74,8k *arropa, oinetakoak eta osagarriak* erosi dituzte, % 54,0k *informatika, elektronika eta telefonía*, % 51,9k *altzariak, etxetresna elektrikoak eta jostailuak*, % 49,4k *etxean zerbitzatutako edo lokalean jasotako menuak*, % 30,5ek *liburuak, filmak eta musika*, % 29,9k *elikagaiak eta garbiketako eta higieneko produktuak*, eta % 20,1ek *kirol-artikuluak*.

1. GRAFIKOA


Internet bidez gehien erositako produktuak



Zerbitzuak. Kontratatutako zerbitzuei dagokienez, *bidaiak eta ostatuak* nabarmendu dira (% 73,1), eta, ondoren, *ikuskizunetarako sarrerak* (% 72,4). Honako hauek, berriz, neurri txikiagoan kontratatu dira: *telekomunikazioak* (banda zabala, telefono-lineak...) (% 30,3), eta *akzioak, aseguru-polizak eta bestelako finantza-zerbitzuak* (% 21,2). Hala ere, bi kasuetan ehunekoak gora egin du aurreko urtearekin alderatuta.

2. GRAFIKOA

Internet bidez gehien kontratatutako zerbitzuak




ONLINE EROSTEKO ARRAZOIAK

Internet bidez erosteko arrazoi nagusia *erosotasuna* izan da baliabide hori erabili dutenen % 40,7rentzat, *salmenta-prezio hobea* % 29,1entzat eta *establezimendu fisikoetan produkturik ez izatea* % 12,5entzat. *Eskaintzak hobeto aztertzea* eta *denbora-falta* izan dira beste arrazoi batzuk.

3. GRAFIKOA

Online erosketen arrazoiak



ONLINE EROSKETETAN EGINDAKO GASTUA

Inkestatuen % 66,7k uste dute aurreztu egin dutela Internet bidez erostean.


Ordaintzeko modu nagusia *banku-txartela* izan da (% 94,4), eta, ondoren, *ordainketa-kontuak* (% 29,4), *banku-transferentzia* (% 10,0), *jasotzean ordaintzeko erosketak* (% 7,4) eta *diru elektronikoa* (% 0,8).

SEXUAREN ARABERAKO BEREIZKETA

Sexuaren arabera bereizita, gizonen % 74,2k erosketaren bat egin dute Internet bidez, eta ehuneko hori emakumeen ehunekoa baino handixeagoa da (% 68,6). Internet bidez erositako produktu motari dagokionez, emakumeek gizonek baino gehiagotan erosi dituzte *arropa, oinetakoak eta osagarriak* (% 83,0 eta % 67,1, hurrenez hurren). Gizonen artean, berriz, *informatika, elektronikak eta telefoniako produktuen* erosketak nabarmendu da (% 63,9 gizonen kasuan eta % 43,6 emakumeen kasuan).

4. GRAFIKOA

Erosketen arteko aldea, sexuaren arabera bereizita





OHAR METODOLOGIKOA

Etheen Koiuntura Ekonomikoari buruzko Inkesta Nastatek hiru hilean behin 640 etxeko ausazko lagin bati egindako estatistika-eragiketa da.

Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan, Internet bidezko erosketei lotutako alderdietan sakontzen da, Nafarroako kontsumitzaileek gai horren inguruan izan duten jokabidearen bilakaera aztertzeko.

Fitxa teknikoa

- **Unibertsoa:**
18 urte edo hortik gorako biztanleria, Nafarroako Foru Komunitateko familia-etxebizitzetan bizi dena.
- **Inkesta mota:**
telefonoz eta Internet bidez.
- **Laginaren ezaugarriak:**
ausazko hautaketa, sexuaren eta adin-taldearen arabera estratifikazioarekin.
- **Laginaren tamaina:**
640 kasu.
- **Errore estatistikoa:**
 $\pm 4,0$ (laginaren tamainaren arabera eta Populazio Mugagabeen Laginen Teoriaren arabera kalkulatuta, probabilitate txikieneko kasuan $p = q = 0,5$).
- **Konfiantza-maila:**
% 95,5 ($K=2$).
- **Aldizkakotasuna:**
hiru hilean behin.



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Etheen Koiuntura Ekonomikoari buruzko Inkesta. 2024ko 1. hiruhilekoa.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

